



04
Martxo
/2011

LEZO

LEZO ETA EUSKARA

**HOBKUNTZAK
UDAL-EKIPAMENDUEN
KARTAN**

**AITON BORDA, JUBILATUEN
BIGARREN ETXEA**



LEZO

LEZOAUNDIA, LEZOREN BIHOTZA

- Aizu barkatu, non dago Markesane?
- Hartu kalea goraldera eta udaletxera bidean ezkerretan dagoen parkea da.

Eta listo. Horixe zen gutxi-asko Markesane parkeaz genekiena. A bai, eta zuhaitzak zeudela, eta gaztetxoek hara joaten zirela leku ezkutuen bila. Herriaren erdi-erdian egon arren, kasik ezkutuan zegoen parke ezezaguna zen.

Bistan da parkeak leku berean jarraitzen duela. Baina INEMekin egindako lanei esker, orain ez du hesitzen duen murririk, eta kaletik parkera konturatu gabe sartuko da ibiltaria.

Ordenatuagoa dago, gainera. Zuhaitzek, bideek, eta bankuek, bakoitzak bere lekua dute. Orain, etengabe eskaintzen dio lezoarrari parkean barneratzeko gonbitea: liburua irakurtzera, txakurrarekin ibiltzera edo lagunekin tertulian aritzera.

INEM bidez kontratatutako langileak bakarrik ez, azken urtean Arantzikok ere aritu dira lanean parkean. Bertan aztarna arkeologikoak egon zitezkeela susmatuta hasi zituzten indusketak. Baita asmatu ere. Dokumentu zaharren arabera Guillermo Lazónek sortu zuen Lezo, eta egun parkea dagoen lekuan egon zen bere oinetxea: Lezoaundia (XVII).

Izena bakarrik ez, izana ere bazuen etxe hark, 361 m²-ko oina baitzuen. Gainera, oinetxeak ematen dio izena parkeari, herritarrok Markesane bezala ezagutzen dugun arren, ofizialki bere izena Lezoaundia Parkea baita. Oinetxearen perimetroarekin batera, beraz, herriko historiaren zatitxo bat ere azaleratu da indusketa-lanekin.

- Aizu, barkatu, non dago Markesane?
- Bai, hartu kalea goraldera eta segi taupada hotsei.





LEZO ETA EUSKARA

EUSKARA DA LEZOKO BEREZKO HIZKUNTZA, ETA LEZOARREN IDENTITATEAREN ZATI GARRANTZITSUA. DUELA GUTXI ARTE, EUSKARA ZEN KALEKO HIZKUNTZA. ORAIN, HORI ERREKUPERATU ETA LEZOREN ERABATEKO EUSKALDUNTZEA LORTZEKO LANEAN ARI DIRA HERRITARRAK, UDAL-TEKNIKARIAK ETA ARDURADUN POLITIKOAK.

“GAZTEEN ARTEAN EUSKARAREN ERABILERA-MAILA %29KOA DA, ETA GEHIENEK EUSKARA DAKITELA KONTUAN HARTUTA, DATU KEZKAGARRIA DA”

JOXE MARI IRAOLA

LEZOKO UDALEKO EUSKARA TEKNIKARIA

1989tik, bi urtean behin euskararen erabileraren neurketa egiten du Lezon Soziolinguistika Klusterrak. 2010eko azaroan egin zen neurketaren emaitzak eskutan, balorazioa egiten ari dira, Xanti Val, Kultura Teknikaria eta, Joxe Mari Iraola, Euskara Teknikaria. Ondorio nagusietatik abiatuta, euskararen orainaz eta geroaz mintzatu dira.

Lezo oro har hartuta, zer diote datuek?

J.M. Azken urteetan %38koa da erabilera, ez da aldatu. Dagoen hizkuntz ezagutzarako [%60 inguruk daki euska-

raz] oso indize altua da, eta hori jeitsi ez izanak, hizkuntzarekiko leialtasun handia erakusten du. Haurrak tartean badaude, erabilera %49ra igotzen da, helduek artean gazteleraz egin arren, hurrekin euskaraz egiten dutelako.

X. Gure lana hein handi batean hori mantentzea da, eta udalak oso kontziente dira lana ondo eginda ere, ezin dutela hori irauli. Horretarako, gizarte baldintzak aldatu behar dira eta Eusko Jaurlaritzak politika zuzenagoak inplementatu behar ditu.

Gazteen datua, ordea, kezagarria da.

J.M. 2008an detektatu genuen gazteen artean erabilera %13ra jeitsi zela. Azken neurketan hori hobetu egin da, eta %29koa da orain. Legegintzaldi hasieran datu horrekin kezkatuta geratu ginen. Horregatik, euskara-sailetik sortu diren egitasmoak gazteei begira landu dira. Gainera, Lezo Berriro Euskaldun batzordean datu hori beti presente egon da. Orain badirudi goruntz egin duela, baina oraindik ere baxu xamarra da. Gazteen %100ak daki euskaraz eta horrek egiten du kezkarri datua.



Zein neurri hartu zenituzten erabilera-datu hori hobetzeko?

J.M. Besteak beste, Kuadrilategiko adin tartea zabaldu degu. Orain arte DBH 2 eta 3koentzat bazen, orain DBH 4 artekoentzat da.

X. Hori oso inportantea. Lezon Kuadrilategik Gaztelekuaren papera ordezkatzen du. Adin tarte batean (12-15 urte) ia gazte denak joaten dira. Gainera, gazteentzat egiten ditugun gauza den-denak euskaraz dira, eta hori erabilera-ri eusteko beste baliabide bat da.

J.M. Beste saiakera bat Mañontzi Bertso Elkartearekin egin dugu. Bertso Eskola haur eta gazteei zabaldu diete. Lehen helduentzako bakarrik zen.

X. Hori hizkuntza kalitatea suspertzeko egina dago. Gakoa hizkuntza afektiboa eskuratzeko erregistro ezberdinak lantzeko tresnak ematean datza. Erabilera sustatzeko funtsezkoa da hizkuntzako erregistro denetan eroso sentitzea.

Zein dira gazteen artean erabilera baxua izatearen arrazoiak?

X. Euskal Herri osoko kontua da, eta Lezon areago joan da. Arrazoi asko egon daitezke. Lezon joera handia dago herritik atera eta asialdia ere kanpoan bilatzeko. Horrek, ingurune erdaldunagoa izanik, eragin handia du.

J.M. Gero ere, belaundi aldaketa dago. Belaunaldi berriak ez du euskara galtzeko arriskurik ikusten guk ikusten genuen bezala. Hor badago datu bat kuriosoa dena, eta da gazteak heldu kategoriara pasatzen direnean euskara errekuperatzen dutela.



EUSKARAREN ERABILERA DATUAK LEZON:

Orokorrean: %39
Haurrak: %52,8
Gazteak: %29
Helduak: %30,5
Adinekoak: %39,7



X. Horri begira gaude, eta ongi esan det, begira. Gazteengan eragiten duten indarrekin eta ohitura berriein alderatuta, udalaren indarra makalena da.

Zein norabidetan ari da lanean Lezoko Udala?

X. Normalizazio prozesuari garrantzia handia eman diogu beti. Adibidez, gure argitalpenak edo garai bateko kultura-agenda euskara hutsean argitaratzen genuen, eta guk antolatzen ditugun ekitaldien %100 euskaraz dira. Hau da, adin tarte batzuetan behintzat euskarari espazio osoa eskaini nahi diogu. Hori da guretzako hizkuntzaren erabilera normalizatzea.

J.M. Gainera, udal administrazio-mailan lan handia egin da. Euskalduntze lan ikaragarria egin da bertako lan-

gileekin. Lezoko udaletxera etorrita, edonorekin hitz egin daiteke euskaraz kasu pare bat kenduta, eta haiek hitz egin ez arren, ulertzeko gai dira. Gainera, abenduan EBPNn (Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia) sartu ginen eta Oarsoaldea Garapen Agentziatik ere lantzen degu euskara gaia eskualdeko beste udalekin batera. Gizarte esparru guztiak kontuan hartuta egin da lan: familiak, lan-mundua, komunikabideak...


Aurrera begira zein asmo duzue sailean?

J.M. Diruak uzten badu, berdina egiten joango gera.

X. Bai. Krisiaren eraginez aldaketa asko etorri da hona, beste eremutan gertatu den bezala. Segur aski udaleko euskara-sailak ere murrizketak jasango

ditu. Ez agian duela urtebete kulturak jasan zituenak bezalakoak, baina dirupartidak murriztearen ondorioak kulturaren 10-15 urte barru nabarituiko diren bezala, euskararen kasuan, ondorioak askoz lehenago igarriko ditugu. Hizkuntzaren berreskurapenari buruz hitz egiten ari geranean, larria da lehentasunen aukeraketa bat egin behar izatea krisi ekonomikoagatik. Asko nabarituiko da Euskal Herri osoan.

“Erabilera datuak iraultzeko, gizarte baldintzak aldatu behar dira eta Jaurlaritzak politika zuzenagoak implementatu behar ditu” Xanti Val



EUSKARAREN ORDENANTZA BERRIA PRESTATZEN ARI DA UDALA

Udala euskaldunen hizkuntz eskubideak errespetatuko dituen Euskara Ordenantza berria prestatzen ari da. Izan ere, egun indarrean dagoena 1987koa da eta gainditua dago puntu askotan. Oinarriak jarriak daude dagoeneko.

“Euskara da Lezoko berezko hizkuntza, eta lezoarron identitatearen parte” dio Haritz Salaberria alkateak. Hain zuzen ere, hori da ordenantza berria egiteko arrazoietakoa bat: kalean eta udalean euskaraz bizitzea. Erdaldunen hizkuntza-eskubideak beti bermatuak daude la kontuan hartuta, arau hau euskaldunen eskubideak errespetatzera dator.

Egun indarrean dagoen ordenantzatik berrira emango den pausua “handia” eta “garrantzitsua” izango da. Udal barnean, euskara hutsean funtzionatuko da, eta gaztelera itzulpenetarako eta erdaldunen hizkuntza-eskubideak bermatzeko utziko da. Halaber, euskara kaleko paisaiaren parte izatea bilatuko du ordenantza berriak.

Lezo ez dago UEMA osatzen duten udalerrien artean ez dituelako baldintzak betetzen oraindik. “Lan gehiago egin beharko dugu horretarako” aitortu du Haritzek. Hala ere, ordenantza berri honekin UEMAREN filosofiara gerturatu nahi izan dutela dio alkateak.

Ordenantza garatzeko oinarriak aztertzekeo garaian, beste udalen lan eredu-garriari erreparatu diote Lezoko Udale-

ko arduradunek, tartean, Azpeitia eta Anoeta.

1987KOA ERE BERRITZAILEA IZAN ZEN

Euskararen egoeran gauza asko aldatu dira Lezon eta Euskal Herrian azken 24 urteetan, eta aspaldi dago zaharkitua egungo Euskara Ordenantza. Ordenantza berria gaur egungo egoera eta beharretara egokituko da.

1987ko arauarekin aurrerapen handiak eman ziren. Besteak beste, euskara lehenetsi zen eta dokumentuak bi hizkuntzetan idatzi beharra arautu zen. Aitzitik, gehienak gaindituak daude gaur egun. Esaterako, dagoeneko gauza asko euskara hutsean egiten dira, eta udaleko ia langile denak euskaraz lan egiteko gai dira.



LEZO BERRIRO EUSKALDUN BATZORDEAK BERE LANAREN BA- LORAZIOA EGIN DU

Lezoko euskararen egoera aztertu eta bertan eragiteko jaio zen 2009an Lezo Berriro Euskaldun batzorde herritarra.

Tarteka komeni izaten da geldiunea egitea atzera begiratu eta norabide egokian ote goazen jakiteko, eta horixe egin du berriki batzordeak. Hala, iaz egindakoa baloratu eta aurrera begirako hausnarketa egin dute.

Besteak beste, batzordearen helburua euskararen erabilera aztertzea da, euskararen egoeraren inguruko gogoeta-gune izatea. Hausnarketa horietatik, lan- edo ekimen-proposamenak ateratzen dituzte gauzatu daitezten.

laz berebiziko garrantzia eman zioten gazteen aisialdian euskarak duen lekua aztertu eta hobetzeari. Hala, Kuadrilategiko adin tartea zabaltzeko lanean parte hartu zuten (DBH 4 arte zabaldu zen) eta gazteentzako kultura-agenda propioa lantzeko proposamena egin zuten. Bai bata eta bai bestea, aintzat hartu ditu udalak eta gauzatu egin dira.

UDALAREKIKO LOTURA, PENDIENTE

Esan bezala, burutzeko aukera dagoenean, udalak aintzat hartzen ditu batzordeak egiten dituen azterketak eta hausnarketak. Batzordea erreferentziazko iritzia da udal-programak eta ekimenak burutzeko.

Lezo Berriro Euskaldun batzordea udal egituraren barruan sartzeko borondatea agertu dute udalak eta batzordeak berak, Kirol Mahaiarekin eta Jai Batzordearekin egin bezala. Aitzitik, hori nola gauzatu erabakitzea falta da. Horretarako batzordeak hobeto definitu



behar ditu bere egitura eta funtzionamendua.

ETA AUERRERA BEGIRA?

Gaztea da batzordea, eta pausuak ahalik eta hobekien antolatzen dituzten arren, martxaren arabera norabidea zuzentzen saiatzen dira. Hala, euskararen egoera hobetzeko proposamenak egiteaz gain, ekintzak burutzera ere pasa behar ote diren erabaki behar dute 2011n. Bestetik, 2010ean zintzilik geratu diren gaiak ere helduko diete.

Esaterako, sare sozialetan Lezoko

euskal komunitatea aztertzeke dago oraindik. Kideen iritziz gutxi ikertu da aspektu hori, eta egungo joerak ikusita berebizikoa da alor horretan lan egitea.

Beste zailtasun gune bat merkataritzan topatu dute. Argi dute komertzioaren inguruko harreman-sarean erabiltzen diren hizkuntza-ohiturak landu behar direla. Urtetan esparru horretan euskarra erabiltzeko programa geldituta egon da emaitza apalak eman izan dituelako, eta beraz, esparru horretarako hurbilketa lana berraztertuko dute.

Arazo hori euskararen erabilera bul-

tzatzeko egiten diren ekimenetan ere sumatu dute (kalean, gazteen artean, familian...). Urtetan egindako saiakerak ez dute behar adinako eraginik izan, eta horren inguruan hausnarketa egiteko beharra ikusten du Lezo Berriro Euskaldun batzordeak.

Azkenik jendea erakarri nahi dute batzordera. Herritarren taldea da batzordea, denentzako irekia. "Euskararen inguruko gaiak aztertzen dira udalean, baina askoz ere aberasgarriagoa da interesa duen jendearekin ere gogoeta horiek elkarbanatzea" dio Haritz Salaberriak.

EKIPAMENDUAK

Hobekuntzak ekipamenduen kartan

Azpiegitura eskaintza ona edukitzea oso garrantzitsua da herrian eroso bizitzeko. Lezok ekipamendu ugari du, baina egiari zor, bazuk zaharkituak egon dira denbora luzez.

Horri konponbidea jartzeko eta, herritarren ongizateari begira eskaintza osatzeko, udalak inbertsio ugari egin du azken urteotan herriko eraikin publikoetan. Egin diren lan guztien artean, badaude herritarren harrera beroa jaso duten lau kasu: liburutegia, kiroldegia, apartamentu tutelatuak eta eguneko zentroa.



LIBURUTEGIA

Liburutegian egin diren lanekin eskaintza hobetu egin da. "Lehen liburutegia umeentzako espazioa zela uste genuen, baina ez da hala" dio Lander liburuzainak "hau ez da biltegia. Geroz eta gehiago da adin guztietako pertsonak sozializatzeko lekua, eta horretara egokitu gara". Liburuak maileguan hartzeaz gain, beste gauza asko ere egin daitezke: interneten ibili, aldizkari eta egunkariak doan irakurri, ikasi...

Hobekuntza nabarmenenak barruan egin dira. Kanpoaldean leiho berriak ja-

rri eta irisgarritasuna hobetzeko sarre-
ra moldatu dituzte.

Gainera, sarreraren ondoan entregarako buzoia jarri dute. Hala, lehen ez bezala, liburutegia itxita dagoenean hor utzi ahal izango dira liburuak.

Barrura sartzean, berehala ikusten dira aldaketak. Batez ere, beheko solairuan eta bigarrenean. Behekoan, irakurgela, liburuzainaren txokoa eta produktu berriak iragartzeko espazioa daude orain. Gainera, hor bi gunere bereizi dituz-

te gazteenentzat: bat, 0-6 urtekoentzat eta, bestea, 7-14 urtekoentzat. Lehen ez bezala, adin tarte bakoitzak egokitu-tako altzariak ditu, baita kontsultarako bi ordenagailu ere.

Bigarren pisuan, KZgunea kendu, eta bere ordez helduentzako liburutegia atondu da. Hala ere, KZgunea kenduagatik, ez da interneterako sarbidea desagertu. Liburutegiko ordenagailuen bidez edo ordenagailu eramangarrien bidez sar daiteke interneten (kablez, seguruagoa eta azkarragoa delako).



KIROLDEGIA

Agian kiroldegiko erabiltzaileak ez dira jabetu udalak egin dituen mantenu-lan eta egokitzapenez (ate eta kaldera berriak, lur aldaketak, komun berriak...), baina seguru guztiak ohartu direla gimnasioko eta *spinning*-eko material guztia berritu dela. Inbertsio handia izan da, baina premiazkoa ere bazen. Horregatik, oso harrera ona izan du herriko kirolzaleen artean.

Lezoko eta inguruko gazteen artean, hala ere, harrera beroena izan dutenak, seguruenik, *skate* pista eta rokodromoa izan dira. "Rokodromoa, amaitua dago

baina ezin dugu ireki, sare bat jarri zain gaudelako. Baina ziur gaude oso harrera ona izango duela, orain arte ez zegoelako halakorik" dio Arkaitz Angiozar Kirol Teknikariak.

Kiroldegiko pistan ere egin dira lekua hobeto baliatzeko egokitzapenak. Eskubaloirako porteria eraisgarriak jarri dituzte, eta lehen zegoen pistaren zabalera bi kantxa sortu dira porteriak eta kanastak jarriaz. Hala, lehen pista bakarra zegoen lekuan, orain hiru daude. Horiez gainera, frontoi zaharra ere berritu da.

Pilota- eta baloi-jokoak gustuko dituzten lezoarrak zorioneko daude. Aipatutako egokitzapen eta berritze horiez gain, udalak kiroldegiaren kanpoaldean ping-pong mahaia jarri ditu eta, herrian zehar hainbat kanasta (Altamiran, Tiñelu atzean eta Saldise plazan).

Kiroldegian hobekuntzak egiteko premia handia zegoen. Aipatutako horiek lehenetsun handiena zutenak ziren. Hala ere, etorkizunean zerbitzua hobetzeko inbertsio gehiago egingo dituzte udalak eta Serviociok (kiroldegia kudeatzen duen enpresa).



APARTAMENTU TUTELATUAK ETA EGUNEKO ZENTROA

Kostata, baina, gauzatu egin dira. Lezok prest ditu hirugarren adinekoentzako apartamentuak eta eguneko zentroa. Herrian etsipen handia sortu du gaiak azken hamarkadan. Izan ere, 1998an Plan Gerontologikoa egin eta bi azpiegitura horien beharra agerian geratu zenetik, gaia bueltaka ibili da.

Egungo Gobernu Taldea udalean sartu zenean, gai horri adarretatik heltzea erabaki zuen. Berez, hau da udalak legegintzaldian egin duen inbertsio handiena (ia 1.000.000 euroko aurrekontua)

Eguneko zentroaren kasuan, udalak obrak egitea bere gain hartu zuen eta

amaituta daude. Orain Foru Aldundiari dagokio zerbitzua martxan jartzea, bere esku egongo baita kudeaketa.

Bestalde, apartamentu tutelatuak azaroan inauguratu zituen udalak, herritarrek ezagutu zitzaten. Kasu horretan kudeaketa osoa udalaren eskuetan egongo da. Bi pertsona daude hor bizi-tzen hasteko prest eta udala azken prestaketak egiten ari da.

Apartamentu tutelatuak 65 urtetik gorako pertsona autonomoentzako daude pentsatuak, baina hala ere, normalean baino etxe egokituagoak dira. Behar duenarentzako alarmak, zaintza, garbiketa eta otordu zerbitzuak eskaint-

zea da asmoa. Gainera, etxez etxeko laguntza zerbitzua ere jaso ahal izango dute.

Denboraldi jakinetarako, premiazko beharra daukaten pertsonak ere hartu ahal izango dira apartamentuetan: etxebizitza lortzeko arazoak daukaten pertsonak, arazo sozialak daukatenak...

Eguneko zentroa eta apartamentu tutelatuak eraikin berean daude, Añamendi kalean. Horrek asko erraztuko du bi zerbitzuak elkarren osagarri izatea, hala behar denean. Erabiltzaile izango direnen zerrenda udaleko Gizarte Zerbitzuen sailaren bidez osatuko da.

SE AMPLÍA LA CARTA DE EQUIPAMIENTOS

El bienestar de un municipio, entre otras cosas, se mide en función de los equipamientos que ofrece. Para el ciudadano es un aspecto vital.

Durante los últimos tres años, el Ayuntamiento ha destinado parte de sus presupuestos a mejorar y ampliar la carta de equipamientos que ofrece.

BIBLIOTECA

La biblioteca Andreone se ha adecuando para que sea algo más que un lugar donde se almacenan libros. Se ha reordenado la planta baja, y se han adecuando dos espacios para niños de 0-6 años y 7-14 años con mobiliarios adaptados a sus características. También se han colocado dos ordenadores de consulta.

Por su parte, en el segundo piso se ha quitado el KZgune y se ha aprovechado el espacio para colocar la biblioteca para adultos. Sin embargo, seguirá habiendo conexión a internet con los cuatro ordenadores de la biblioteca, así como con los portátiles personales (con conexión por cable, más rápida y segura).

Por último se ha instalado un buzón en la parte exterior de la entrada de la biblioteca, donde se pueden entregar los libros a cualquier hora, y se ha mejorado la accesibilidad colocando una rampa de acceso en la entrada, así como un pequeño ascensor dentro.

POLIDEPORTIVO

Entre las inversiones que se han hecho en las instalaciones deportivas, las que mejor aceptación han tenido han sido el cambio de todas las máquinas del gimnasio y de la sala de *spinning*, y la pista de *skate* que se puso hace dos años. Dentro de poco también se abrirá el rocódromo que también está causando expectación.

Por otra parte, en la pista del polideportivo se han creado dos canchas pequeñas aprovechando la anchura de la pista actual, y se han colocado porterías avatibles de balonmano.

Ya en el exterior, se han instalado canastas en diferentes puntos del pueblo, se ha renovado el frontón viejo y reparado el exterior de las piscinas (duchas y caminos).

Hasta ahora se han realizado las obras más urgentes pero en el futuro seguirá habiendo inversiones para mejorar este aspecto.

APARTAMENTOS TUTELADOS Y CENTRO DE DÍA

A pesar de que han sufrido retrasos por la situación económica, ya están concluidas las obras del centro de día y de los apartamentos tutelados. Los dos servicios estarán en el mismo edificio (en la calle Auñamendi), de manera que en caso necesario, se facilitará su complementariedad.

Las obras del centro de día están concluidas, pero aún no se ha abierto el servicio dado que su gestión corresponde a la Diputación de Gipuzkoa. Por otro lado, en noviembre se inauguraron los apartamentos tutelados y pronto entrarán a vivir dos personas. En ambos casos, las listas de personas interesadas en los servicios las gestiona el departamento de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Lezo.

En principio, los apartamentos tutelados están dirigidos a personas autónomas, pero se contempla que personas con otro tipo de necesidad puedan pasar temporadas ahí.

AITON BORDA

Lezoko jubilatuen bigarren etxea

Duela 33 urte Aiton Borda sortu zene-
tik, elkartearen erreferentzia
bihurtu da. Ez Lezokoena bakarrik, in-
guruko herrietatik datozena ere; eta
ez da harrizkoa antolatzen dituzten
ekintza-sortari erreparatzen badiogu.

Astero bingoa, erlaxazioa, eskulanak,
yoga, abesbatza eta soinketa; hama-
bostean behin, podologoa; hilerio txan-
goa; udan zazpi eguneko bidaia... eta
segi, eta segi. Gainera, herrian egiten
diren jai eta ospakizunetan ere parte
hartzen dute, hala nola, lhauterietan
eta Santa Ageda bezperan.

Barbara Olaizola, Saturnina Ezkurra,
Sabina Intxaurrendieta eta Malen Agi-
nagak osatzen dute gaur egungo Zu-
zendaritza Batzordea, Gregorio Zorro-
zua lehendakariarekin batera. Denek
gogor egiten dute lan elkarteak aurrera
egin dezan.

Batzordeak argi du Aiton Bordaren he-
lburu behinena erretiratuei entreten-
imendua eskaintzea dela, eta horretan
ari dira. "Ongizatea eta aisialdia eskaini

nahi diegu" dio Gregoriok. Erretiratuak
pozik joan daitezela nahi dute. Horre-
gatik, pauso txikiak emanda bada ere,
hobetzen eta mugitzen saiatzen dira.

HOBETZEKO HELBURUAREKIN LANEAN

Aipatutako ekintzez gain, zuzendari-
tzak ekintza berri eta erakargarri gehi-
ago egiteko ideia du. Esaterako, antzerki
talde bat sortuko lukete gustura, baina
horretarako parte-hartze aktiboagoa
behar dutela diote. "308 bazkide gara,
baina asko ez dira lana egitera edota
parte-hartzera animatzen. Hori alda-
tzea lortu behar dugu, ausartagoak izan
behar gara parte-hartzeko garaian. Ba-
tzordean jende gehiagok parte-hartzu-
gero, eskaintza are zabalagoa edukiko
genuke eta lana askoz hobeto bana-
tuko genuke" dio Gregoriok.

Instalazioei dagokienean badakite ezin
dutela ilargia eskatu. Horregatik ez
dute lokal handiagoa exijitzen -eta ez
da behar ez dutelako-, baina, egungoa
hobetu nahi dute: berogailu sistema
hobetu eta paretak margotu, besteak

beste. "Abesbatzarekin entseatzeko du-
gun bakoitzean mahai guztiak kendu
behar ditugu, eskulanetako materiala
ahal bezala daukagu gordea... Zerbait
egin behar dugu".

"Jon Legorburu etorri da gurekin hitz
egitera eta gure egoeraren inguruan
galdetzeraz" dio Gregoriok "gauzen ze-
rrenda bat egin genuen, eta esan nion
hau txiki geratzen zaigula. Aiton Bor-
dak ekintza gutxi egingo balitu beste
kontu bat litzateke, baina bai egiten
ditugula gauzak. Baina egia da udalak
ahal duen neurrian aintzat hartzen di-
tuela gure eskariak".

Lan asko eta ekintza ugari prestatze-
ren ondorioetako bat da hori. Aitzitik,
ez dira kikiltzen. Oso argi daukate no-
rentzat eta zergatik egiten duten lan.
"Lan egitea gustatzen zaigu, eta hau
lezoar erretiratu guztien elkartearen izatea
nahi dugu. Etorri nahi duen guztiak ire-
kiak ditu ateak. Bazkideak ez direnek
eta inguruko herrietakoek ere", aurre-
rantzean ere, elkartearen erretiratuen go-
zamenarako leku izan dadin.



“Lezoko erretiratu guztientzako elkarteak izatea nahi dugu. Etorri nahi duen guztiak irekiak ditu ateak, bazkideak ez direnek eta inguruko herrietakoek, ere”





AITON BORDA

La segunda casa de los jubilados de Lezo

Desde que hace 33 años se fundara Aiton Borda, esta asociación se ha convertido en el centro de referencia de los jubilados. No sólo de los de Lezo, sino también de los visitantes que vienen de los alrededores. Y lo cierto es que no es de extrañar, vista la cantidad de actividades que organizan.

Bingo, relajación, manualidades, yoga, coro y gimnasia, todas las semanas; podólogo, cada quince días; una excursión al mes; en verano un viaje de siete días... y suma y sigue. Además también participan en las diferentes fiestas que se celebran en el pueblo, como Carnavales y Santa Águeda.

Barbara Olaizola, Saturnina Ezkurra, Sabina Intxaurrendieta y Malen Aginaga son, junto con el presidente Gregorio Zorrozuza, quienes actualmente componen la junta. Todos trabajan duramente para que la asociación siga en marcha.

Tienen claro que el objetivo principal de Aiton Borda es ofrecer entretenimien-

to a los jubilados, y trabajan para ello. "Queremos ofrecerles bienestar y entretenimiento" explica Gregorio. Quieren que los jubilados acudan felices a la asociación y para ello, tratan de moverse y avanzar, aunque sea dando pequeños pasos.

CON VISIÓN DE MEJORAR

Además de las actividades mencionadas, la junta quiere organizar más actividades atractivas. Por ejemplo, tienen ganas de crear un grupo de teatro, pero para ello, necesitan una participación más activa. "Somos 308 socios, pero hay muchos que no se animan a trabajar o participar, tenemos que lograr que eso cambie, tenemos que ser más echados para adelante" dice Gregorio. "Si en la junta participara más gente, tendríamos una oferta más amplia y podríamos repartir mejor el trabajo".

En cuanto a las instalaciones, saben que no pueden pedir la luna. Por eso, no exigen un nuevo local más grande -y no es porque no lo necesiten- pero

sí quieren que se mejore el actual: mejorar el sistema de calefacción, pintar... "Cuando ensayamos con el coro tenemos que retirar todas las mesas, tenemos el material de manualidades guardado como podemos...".

"Jon Legorburu ha venido a hablar con nosotros" explica Gregorio "hicimos una lista de necesidades, y yo le dije que esto se nos queda pequeño. Una cosa es que Aiton Borda no hiciera cosas, pero es que Aiton Borda hace. Pero bueno, sabemos que no podemos pedir un edificio nuevo y el Ayuntamiento, en la medida que puede, siempre tiene en cuenta lo que decimos".

Es lo que tiene organizar muchas actividades. Pero no se acobardan, tienen muy claro porqué trabajan. "Nos gusta trabajar y queremos que éste sea el hogar de todos los lezoarras jubilados. Es una sociedad libre para todo aquel que quiera venir, también para los que no son socios y la gente de fuera", para que en adelante Aiton Borda siga siendo lugar de disfrute para los jubilados.

“Queremos que sea un hogar del jubilado para todo Lezo. Es una sociedad libre para todo aquel que quiera venir, también para los que no son socios y la gente de fuera”



UDALTZAINEN GAUEKO ZERBITZUAK 2011n



Duela urtebete pasatxo jarri zen mar txan Lezoko eta Oiartzungo udaltzainek gaueko zerbitzu batzuk elkarrekin egiteko esperientzia, eta emaitzak ikusita sistema horri eutsiko zaio 2011n ere. Aitzitik, zerbitzua indartu egingo da: igandetik ostegunerako gauetan zerbitzua elkarrekin egiten jarraituko dute (herri bakoitzean patruila bat ibili beharrean, patruila bakarra ibiltzen da bi herrietan), baina, ostiral eta larunbat gauetan udaltzain bakoitzak dagokion herrian egingo du zerbitzua. Izan ere, egun horietan egon ohi da mugimendu gehien.

Udalak udaltzaingoaren zerbitzuan aldaketa hori proposatu zuenean desadostasunak agertu ziren, hala ere, 2010ean zerbitzua normal eman dela dio Haritz Salaberria alkateak.

60.000 EURO AURREZTU DITU UDALAK ZERBITZU MURRIZKETAREKIN

Egoera ekonomikoagatik hartu zen zerbitzuan aldaketa hori egiteko erabakia. Udalarentzat garestiegia zen 24 orduko zerbitzua mantentzea, eta Oiartzungo Udalak ere arazo bera zuela ikusirik, elkarlanean jardutea erabaki zuten.

Udaltzainen zerbitzua partekatuta, zerbitzua mantendu, eta era berean, aurrezteko era lortu nahi zen. Murrizketa horrekin udalak 60.000 euro aurreztu zituen 2010ean.

Kalean etxerik gabeko jende gehiago badago, eta lapurretak gertatu badira, horiek krisiak gizarteari ekarri dion aldaketen ondorio izan direla azpimarratu du alkateak. “Lezon bezala, beste herrietan ere gertatu dira halako aldaketak. Are gehiago, Lezora beste herrietara baino beranduago iritsi dira lapurreta txikiak eta halakoak”.



UDALA, ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA HOBETZEKO LANEAN

Udaltzainen zerbitzuan bezala, udalak murrizketak egin zituen iaz etxez etxeoko laguntza zerbitzuan. Krisiaren ondorioz, ordezkapenak gutxitu egin zituen eta, langileen opor garaietan kasu larrienen bakarrik jaso zuten zerbitzu hori. 2011 rako, ordezkapen horiek egin eta zerbitzua lehengora itzultzeko formula egokia bilatzen ari da udala.

Zerbitzua uda garaian murriztu zen, batez ere. Bitarte horietan gutxienezko zerbitzuak eskaini ziren: higie pertsonala eta botika ematea. Horren harira, udalak eskertu egiten du langileek eta zerbitzua jasotzen dutenek egoera horretara egokitzeko egindako ahalegina.

EZ DA ETXEAK GARBITZEKO ZERBITZUA

Lezon sei langile dabilta etxez etxeoko laguntza zerbitzua eskaintzen, eta gaur gaurkoz, 23 pertsonak jasotzen dute zerbitzu hori. Gizarte Zerbitzuetatik diote langile hauek ez direla etxegarbitzaileak. "Etxeak garbitzen dituzte bai, baina hori baino garrantzitsuagoa da behar den kasuetan konpainia eskaintzen dutela, garbiketa pertsonalean laguntzen dutela, botiken jarraipena egiten dutela, etab.". Langile horiek gaixoeekin eta buruko arazoak dituzten pertsonekin tratatzeko prestatuak daude. Gainera, laguntza jasotzen duenaren jarraipena egiten dute, hobera edo

okerrera doan ikusteko eta Gizarte Zerbitzuei aldaketa horien berri emateko.

Zerbitzua edozein laguntza-mota behar dutenei dago zuzendua, eta helburua, ahal den neurrian onuraduna bere herrian eta familiarean bizitzea da, herritik kanpora dagoen egoitza batera eraman behar izan gabe.

Zerbitzua ez da doakoa, laguntza jasotzen duenaren sarreraren arabera ordaintzen baita. Edonola ere, informazio gehiago jaso edo izena eman nahi duenak udaleko Gizarte Zerbitzuetara jo eta hitzordua hartu behar du. Gaur egun ez dago itxaron-zerrendarik.



? PORTUAREN INGURUKO EZTABAIDA

Portuak asko ematen dio Lezori. Belau-naldi asko bizi izan dira itsasotik, eta gure kulturak ere lotura handia izan du portuarekin. Gaur egun, ordea, buru-hauste asko ematen dizkigu.

Ongi kudeatzen al da portua? Eta batez ere, etorkizunean lezoarrok zein lotura izan nahi dugu portuarekin? Eta nolako portua nahi dugu?

Azken garaiotan, Lezotik kanpoko erakunde asko portuaren etorkizunaren inguruan espekulatzen ari dira. Egin nahi dutena lau haizetara zabaldu dute

lezoarrok in batere kontaktu gabe. Nahi dugunaren gainetik eta gure ongizatearen gainetik ari dira planak egiten.

Batetik, ez dute argi azaldu nahi euren benetako asmoa portuan etxeak egitea dela, kanpo portua finantzatzeko helburu bakarrekin. Bestetik, euren eskumenetik kanpora ari dira, ez dago kielako beraiei, eta are gutxiago Portu Agintzaritzari (merkantzien garraiora dedikatzen den enpresa bat besterik ez da), etxebizitzak non egin behar diren erabakitzea. Hori udalen eskumena da soilik.

Gainera iritzi publikoa nahastu nahi dute. Portuaren etorkizunaren inguruan erabakirik hartu ez den arren, hori sinestarazi nahi dute herritarrek etsipenera eramateko.

Horrek guztiak zer pentsatua ematen digu. Lezoarrok zeresan handia dugu, guk baitugu gure lurretan egingo dena erabakitzeke eskumena, eta guk izan behar dugulako hitza eta erabakia. Ezin gara ikusle pasibo izan.

Horregatik, udalak portuaren etorkizunaz eztabaidatzeko bilerak egingo ditu.



HABLEMOS SOBRE EL FUTURO DEL PUERTO

martxoak 12 marzo | martxoak 26 marzo | apirilak 2 abril

TOMAS GARBIZU MUSIKA ESKOLAN, 10:30ean

PORTUAK ASKO EMATEN DIGU

(buruhauste asko)



LEZO

LABURRAK

EZINDUENTZAKO APARKALEKUEN ERREGULAZIOA

Herriko zenbait ezinduk hala eskatuta, udalak elbarrientzako espreski prestatutako aparkalekuak erregulatuko ditu. %70etik gorako ezintasuna dutenei lehentasuna ematea da helburua, horiek behar bereziak dituztenez, plazak beraien beharretara egokitu nahi direlako.

Gaur egun, Lezon lau bat pertsona daude %70etik gorako ezintasuna eduki eta aparkalekuaren beharra dutenak. Udalak asfaltoan margotuta, kotxearen matrikula jarriko du.

TAO-AREN EGOKITZAPENA ALTAMIRAN

Udalak Altamiran aparkaleku mugatuko gunea ezarri zuenetik konpondu egin dira aparkaleku-arazoak. Horrek udalak hartutako neurriek eragina izan dutela esan nahi du, eta beraz, ardura-dunak pozik daude.

Egun, gai honen inguruan jarraipena egiten ari dira, zerbitzua hobetzeko edo egokitzeko neurriak hartu beharko balira, hartzeko.

Gainera, laster, Altamiran lan egiten dutenek txartel berezia eskuratu ahal izango dute guez ere aparkatzeko. Tartean, institutuko, harrera etxeko eta igerilekuko langileak.





ALGEPOSA INGURUKO BASERRIETARA JOA- TEKO BIDE BERRIA, PREST

Azken urteetan istilu-iturri izan da Algeposa inguruko baserrietara doan bidea. Izan ere, luzaz, lantegiaren inguruan dauden baserrietarako bidea fabrikaren eremuaren erditik pasatzen zen. Hori ezerosoa izateaz gain, arriskutsua ere bazen inguruko bizilagunen-tzat eta lantegiko langileentzat.

Udalarekin egindako hitzarmenari esker, ordea, Algeposak lantegia inguratzen duen bidea egin eta finantzatu du. Bestalde, udalak lanak gainbegiratu ditu. Konponbidea denentzat izan da hobea, batetik motzagoa delako, eta bestetik, seguruagoa delako. Aurreantzean, beraz, Algeposa inguruko baserrietara iristeko ez da fabrikako lurretatik pasa beharko.

ERREKETARA EGITEN DIREN ISURKETAK KONPONTZEN ARI DA UDALA

Herriko erreken kalitate ona bermatzeko, erreketara egiten diren isurketak eta filtrazioak detektatu eta konpontzen ari da udala, Añarbeko Urak eta Ur Agentziarekin (Eusko Jaurlaritza) batera. Lan horrekin 2009 amaieran hasi ziren eta herrigunean eta industriaguneetan zortzi isurketa detektatu dituzte.

Isurketa horien artean, txikiak eta handiak daude. Zubitxo inguruan gertatu dena, esaterako, handia da eta usain txarra ere uzten du. Gaur egun, udala isurketa horren iturria kontrolatu eta nola konpondu aztertzen ari da. Era berean, Hipolito Gezala kaleko filtrazioa konpontzeko obra nahiko handia egin behar izan da. Filtrazioak saneamenduaren zati batzuk zaharkituak daudelako edo etxe batzuk saneamenduko sarera lotuta ez daudelako gertatzen dira.

Hala ere, gaur egun, herriko errekek erabat garbi egon beharko liriateke. "Ez da normala erreka zikina ikustea" dio Leire Betetak "eta hala ikusten dugunean, udaletxera deitu behar dugu, ez da usain txarra egotera itxoin behar".

¡NOTA!

Por el compromiso que el Ayuntamiento de Lezo tiene con el euskera, esta revista municipal se publicará casi en su totalidad en euskera. Sin embargo, todo aquel que quiera, podrá recibir el contenido en castellano poniéndose en contacto en el 943 252438.

Al realizar la solicitud, el interesado deberá facilitar sus datos para poder recibir la revista.



LEZO ongizate iraunkorra

